

GOZATUZ BIZI !



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adin nagusiko pertsonak gizartean integratzeko beharra dago. Horretarako, SNAYJ enpresaren eskutik "Gozatuz Bizi" izeneko zerbitzua jaio da.

Adin nagusiko pertsonekin gure ezagutzak partekatuko ditugu beraiek gauza berriak ikas ditzaten. Batetik, gaur egungo teknologiak zelako baliagarriak diren erakutsiko diegu, eta bestetik, hainbat jarduera didaktiko burutuko ditugu. Hala nola, jarduera fisikoak, sukaldaritza jarduerak eta kultura-jarduerak (antzerkia). Bukatzeko, beraien ideiak eta kontakizunak partekatzeko eta harremanak lantzeko aukera izango dute.